

Martxueta

Aurkibidea

Udalerria: Martxueta

Sarrera



Martxueta Amikuze eskualdean kokatzen den Nafarroa Behereko udalerria da. Honako udalerrri hauek ditu mugakide: Burgue-Erreiti iparraldean; Arrueta-Sarrikota ipar-mendebaldean; Labetze-Bizkai ekialdean; Amorotze-Zokotze hego-mendebaldean; eta Behauze hegoaldean. (Argazkia www.eke.eus webgunetik hartua)

- **Biztanleak:** 236
- **Euskaldunak:** %12,92

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **1**

- Zintak: **1**
- Pasarteak: **14**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **14**

Proiektuak

- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Kattina Etxeberri (1925)



Kattina Etxeberri Martxuetan sortu zen 1925eko agorrilaren 22an. Alaba bakarra zen, eta alaba bat ukan zuen. Ezohiko emazte hau mekanikan aditua da, bizikletak konpontzen ari izan da, bai eta taxia gidatzen ere. Arrantzatzea eta auto lasterketetan ibiltzea ere gustukoa zuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskola (MRT-001/001)

Kattina Etcheverry 6 urtetan hasi da Martxutako eskolan eta segitu du zertifikata lortu arte. Haur jokoak bazituzten eskolan. Artetan, goxoki erostera eskapatzen ziren.

2. Bakantzak seroretan (MRT-001/002)

Bakantzetan, Kattina Etcheverry Arrutako seroren etxean egoiten zen. Trikotatzen eta josten aritzen zen . Arrutar eta martxutar andana bat elkartzen ziren han bakantza denboran.

3. Aitamak etxetiarrak (edo egoiliarak) (MRT-001/003)

Kattinaren amak laborari etxetan lan egiten zuen bainan bazituen ere bere behi bretoinak. Horien esnetik ematen zion egunero etxaldearen jabeari (nagusia deitzen zutena). Nagusiak denda ttipi bat zaukan etxean eta Kattinaren amak hor hartzen zituen behar beharrezko gauzak (kafea, zukrea).

4. Lan munduko lehen esperientziak (MRT-001/004)

Zertifikatua eskuratu bezain laster lanean hasten ziren neska gazteak. Hauxe egin zuen Kattinak : urte batez laborari etxe batean arizan, beste bat errientaren etxean eta hortik landa ezkondu 1944ean.

5. Josten ikasten (MRT-001/005)

Kattina apendizgoan egon da Charlotte Bascans dendariarene etxean. Surfiltzen eta botoin-xilo egiten ikasi zuen.

6. Kongregazionea Martxutan 1939-1945 gerla denboran (MRT-001/006)

Kongregazionean ere egon da Kattina, mantalina xuriz bezi meza egunetan. Apeza frango bortitza zen, Gerla denbora izanez, ez zen dantzatzeko parada handirik.

7. Martxutako pertsona berezi batzu (MRT-001/007)

Kattina oroitzen da Martxutako elizako Marie pianistaz bai eta ere Beñat ttuntturraz elizaz eta ezmila joiteaz arduratzen zena.

8. Goizik ezkondua (MRT-001/008)

Kattina errientaren etxean lan egiten zuen bere senarra ezagutu zuenean. Handik fite ezkondu ziren.

9. Martxutako jendetza 1930 hamarkadan (MRT-001/009)

Garai hartan, familia handiak baziren auzo guzietan : Kattina oroitzen da bere komunionean, bazirela 10 neskato eta 18 mutiko.

10. 1939-1945 gerla denborako kontrabanda (MRT-001/010)

Gerla denboran, Kattinak haragi eta arraultze kontrabanda egiten zuen Baionara buruz. Hortaz aparte, amarekin ari zen lanean eta beste laborari etxetan ere ibiltzen zen .

11. Bizikleta konpontzaile Donapaleuko Menjou auzoan (MRT-001/011)

Bigarren gerla bukatu eta fite, bizikleta konponketan hasi da Kattina bere senarrarekin eta hortan arizan dira bizi guzian, Menjou auzoan zuten tailerran.

12. Donapaleuko Menjou kartierreko bizia 1950 inguruan (MRT-001/012)

Garai hartan, guttienez zazpi ostatu baziren Menjou kartierrean bai eta ere beste ofizio frango : arotza, dentista, medikua eta beste...Auzo horrek bere bestak bazituen, beste auzoek bezala.

13. Taxi gidari (MRT-001/013)

Taxi gidaria ere izan da Kattina. Muga frangotan pasatzen zuen Baigorritik (Izpegiko lepoa iganez) Donapaleun lanean ari ziren langile batzu beren familietara eramateko. Langile hauek muga bestaldetik Donapaleura etorri ziren, ura ekartzeko obrak hasi zirenean, arroilak eskuz egiteko . Batzu Donapaleun berean kokatu ziren.

14. Emazte ezkondu baten denborapasak Donapaleun 1944etik hara (MRT-001/014)

Kattinari betidanik asko gustatu zaio pilota partiden, bertso saioen et auto lasterkaldien ikustea. Eta ez da bakarrik ikuslea izan, baina bai ere aktorea : luzaz arizan da pilotan eta ere arraintzan. Motoak ere gidaturik izan ditu !

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com